Lezoko Unibertsitateko Udala

Elkar zainduz Lezo

2026H0100002

D26/1226. DEKRETUA

Lezoko Altamira auzoko etxebizitza-eraikinen irisgarritasuna hobetzeko obra kontratua

Kontutan izanik 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legeak bere 28 artikuluan xedatzen duena, kontratuaren beharra justifikaturik, kontratazio administratibora bidezkotzat hartzen da. Horregatik, Lezoko Altamira auzoko etxebizitza-eraikinen irisgarritasuna hobetzeko obra kontrataziorako espedienteari (2026H0100002) hasiera eman zaio.

Kontratu honen xedea Lezoko Altamira auzoko etxebizitza-eraikinen irisgarritasuna hobetzeko obrak gauzatzea da.

9/2017 Sektore Publikoko Legearen 17. artikuluak xedatzen duena betez, kontratu hau zerbitzu kontratu gisa kalifikatu behar da, eta ez dago erregulazio harmonizatuaren menpe , bere balio zenbatetsia 116.289,44 €-koa izanik (BEZik gabe).

Hori guztia ikusita, eta udal teknikarien txostenak kontuan hartuta, hona hemen nire **ERABAKIA**:

BAT: Lezoko Altamira auzoko etxebizitza-eraikinen irisgarritasuna hobetzeko obrari dagokion proiektu teknikoa onartzea.

BI: Lezoko Altamira auzoko etxebizitza-eraikinen irisgarritasuna hobetzeko obra kontratua lizitatzeko espedientea onartzea. Prozedura ireki sinplifikatuaren bidez gauzatutako kontratazio prozedura izango da. Lezoko Udaleko Kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Kontratuak 2 hilbeteko iraupena izango du.

HIRU: Lehiaketa eta kontratua arautuko duten Administrazio-klausula partikularren plegua onartzea.

LAU: 140.710,22 euroko gastua onartzea, (%21eko BEZ barne).

BOST: Kontratu honen lizitazioaren deialdia egitea udal honetako kontratatzailearen profilean iragarkia argitaratuz, 20 eguneko epea eskaintzak aurkez ditzaten.

Sinatzailea Alkatea, Mikel Arruti Salaberria

Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara: https://munigex.net/r/0/53/AAAA641Q7.IM9Q